

OTOITZA

Buruz jantziak diran gizonak laster ezagutzen dabe Jainkoaren nagusitza ta jabetasun osoa, eta gizonaren Aren menpeko egon bearra. Au, ekiñean, otoitzari ekiñaz agertzen dabez be, Otoitz egitea, giza-enda guztien zentzunak eskatzen dauana da, Adimena ta biotza Jaunagan jaso naia, jentil errietan be nabaitzen da, Jainkoagazko idei illuna besterik ez daukien erritarren artean ain zuzen be, Beraz, otoitza barre-gari piñi gura dabena, gizadiaren senik sakon-sustraitsuena barre-garritu nairik dabiltz.

Jainkoaren aal-izate osoa ezagutzea da otoitz egitea, gizonaren ezereza ta Jainkoaz daukan menpekotasuna oso-osorik autortzea. Ulert-eziña da, beraz, otoitz ez egitea, Otoitzik egin ez daraan gizona abere ta piztien maillan dabillkigu.

1918-an, Europa'ko lenengo gerratean, alemanak estu artu ebezanean Alkartuak, Foch izentatu eben Sorkaldeko guda-olifekoen Buruzagi orokor, Burruka latz-zakarra izango zan laster, gerraren jokoa erabagitzeko, uztaillaren 18'an ain zuzen be, Foch'ek aurreko arratsaldean, ordu baketsu bat itxi egioela eskatu eutsen Alkartueri. Mandatari bat eldu zan bere lantegian aurkitzen etzan momentuan Guda-arduradunak bial-

dutako mezu edo enkargu batez; Foch'i bertatik emotekoa
zan mezu ori. Joan ziran billa bere egoitzera, baiña etzan
aurkitzen an. Alan be, aren zerbitzariak, Jeneralaren oitura
jakiñik auzotegiko elizara zuzendu eban mandataria; antze
aurkitu eben Foch belauniko, zirkiñik egiteke, altara aurrean
geldi.

Egizu, osteraz luze batean, gizon bi alkarregaz doazala gela
bat berean. Berezkoa ete litzateke alkarri barbarik egin bage
joatea? Baiña egizu gizon oneitarik bat bestearen mende di-
goala osorik, janarian, ara naiz ona joateko ta abar; eta
egizu oraindik besteak ez daukala onangoarentzaz ezertariko
ardurarik, ez maitasunik; zer esango genduke, iñoren mende
doan orrek, iñoiz be ezer esango ez ba'leutso bere ongilleari?
Auxe da egi-egiaz gure ta Jainkoaren arteko jokabidea. Au-
geugaz doa beti bizitzan zear, Aren mende gagoz gu, Aren
eskuko gara osorik, baita artzen dogun arnasa-aldi bakotxean
be. Berezkoaren kontrakoa ez al da Ari itzik ez gitea, lagun
egin daigula Ari eskatzea, iraiñik egin ba'dautsagu geure ta-
mala ta penea Ari erakustea, artu doguzan mesedeakaitik Aren
ontasuna miretsi ta eskerrak emotea?

Otoitz egin bearra

Bear-bearrezkoa da otoitza salbamenerako. Gizonak bere
barrua gertatu bear dau santutasunerako, bestelan ezta sal-
bauko. Jainkoagana zuzendu bearra dau zelan edo alan.

Otoitz egitea naitaezkoa da ezpirituzko bizitzarako, gor-
putz bizitzarako bearrezkoa dan legez arnasa artzea. Gure
ezpirituzko bizitza Jainkoaren graziari dautsola dago, eta Be-
rak emoten dasku orrela itz egiteko ta arnasa artzeko in-
darra, baita otoitzerakoan be. Otoitzik ez egiteak arimeari
gorputz-bizitzari arnasik ez artzeak lakoxe ondorenak lekars-
kioz, au da, gaixotasuna ta eriotza.

Otoitza ez dala bearrezkoa esan oi da batzutan. Jaungoi-
koak guk adierazo aurretik be ezagutzen ditula gure bear-izan
eta preemiñak; edo-ta, Jainkoa azken barik biotz zabala di-
nako, ezin daikela Arek gure eskabidearen kondiziñoetan

jarri guri bear-izanetan laguntzea; edo-ta, Jainkoa aldakaitza
dalako, guk Aren erabagi ta asmoa alda daikegula geure erre-
gu, eskari ta otoitzen bitartez.

Gure Jainko Jaunak, euren eskabideak aurrean jarten dau
isozan erria gura dauala, erakutsi oi dau. Erriak eska daiola
eta Berak sarituko ditu gero olako erriaren eskariak. Orre-
gaiñera, eskatzeko diñosku Berak, eta eskatzen jarraitzeko
Gogora eizu, esate baterako, epaille zuzen-uzaren eta gaba-
adiskideagana joan zan gizonaren ipuiñak; ona lenengoaren
mamiña:

—Bein ba-zan erri batean, Jainkoaren bildur etzan eta
iñori be lotsarik ez eutsan epaille bat. Baita ba-zan erri are-
tan alargun bat be, eta alarguna arengana joan zan onela
esanaz: «Epai gagizuz zuzen nire aurkakoa ta ni». Lenengo-
tan etzan ausartzen; baiña gero onela iñoan bere kautan:
«Jainkoaren bildur ez ba'naz be, ta lotsarik iñori ez izan
alargun au gogaikarri yatalako egin bearko dautsat epai zu-
zena, egunero niri gogait eragitera etorri ez dadin». Eta Jai-
nak esan eutsen:

—Entzun ete dozue epaille ustelak diñoan ori? Ez ete dau-
tse Jaunak gau ta egun deika dagokiozan bere aukeratua
zuzen dana egingo? Luza egingo ete dautse? Zera diñotzuet:
«Beingoan egingo dautsela zuzen dana. Baiña, Gizasemeak
etortean aurkituko ete dau federik lur gainean?» (*Luk.*, 18,
1-8).

Esku zabalago izen bear ete dau Jainkoak bere aldetik
guri dana emoteko guk eskatu be egin barik? Ainbat emona
dau guri guk ezertxo be eskatu barik. Baiña bere gogoa da,
beste gauza asko guk eskatuta emotea, jakiña. Orrek era-
kusten dasku guk Jainkoaz daukagun egoera zuzena; Aren-
ganako lotsa ta deduan eskolatuak gara gu. Santuak egune-
roko otoitzaren bidez ainbatek eta askotariko arimak, doai-
bereziak artu zituezan. Zain daukagu Jainkoa, geure eskari
ta erreguen zain gero, gugaz oindiño be esku zabalago izan
dadin.

Jainko aldagaitza, egia da, guk ez dogu, ez, aldatu al izan-
go geure otoitzez; Berak nai dau, alan be, guk mesede batzuk

eskatzea; eta ez doguz eurak artuko eskatzen ez ba' doguz. Betiren beti bizi dan Jainkoak aldi guztiak ikusten dauz gure tera, lena, oraiña ta geroa. Era batean ikusten dauz gure premiñak eta gure eskariak. Arek beti opa dau, guk eskatzen dautsoguzan mesedeak, guk eskuratzea. Aurretik ikusten gaitu gu eskatzen eta gu ondoren legez sarituak izaten. Ortik, baiña, Jainkoa ez da aldatzen; otoitzak alan be gu errez aldatu gagikez eta gu bidenabar Jainkoaren doai ta mesedeak artzeko gai egin.

Kristoren erakutsia

Berbaz eta egitez, Kristok erakutsi eban otoitzaren bear-izana.

Egitez: Berak, bere bizitzako ogeta amairu urtetarik ogetamar lanean eta otoitzezko jardun ixillean emon ebazan. Bateoan otoitz egin eban; eremuan berrogei egun eta gaueko otoitza egin eban; agiriko lanari ekin aurretik, Jordan aldera baztertu zan. Esan oi danez, Kafarnaun-en egon zanean, toki ixil batera joan oi zan, an «otoitz egiten ebalarik». Amabiat, apostoluai dei egin aurretik, otoitzari ekin eutson. Bost milla gizon janaritzean, otoitz egin eban, eta ondoren be mendira igon zan bakarrean otoitz egitera. Dekapolis-ean gizon gor-mutua osatu aurretik, otoitz egin eban. Pedro'ren autortza baiño len, otoitz egin eban. Bere Antzaldatzean, otoitz egin eban Jesusek. Lazaro'ren illobian, Azken-aparian, Baratzean eta Gurutzean otoitz egin eban.

Itzez: Eten barik otoitz egiteko agindu euskun. «Orregaitik auxe diñotzuet: otoitzean eskatzen dozuen guztia, siñistu egidazue, jadetsiko dozuela, eta emongo yatzuela» (Mk., 11, 24). «Otoitzean fedez eskatzen dozuen guztia, jadetsi egingo dozue» (Mat., 21, 22). «Itxarrik egon, ba, aldioro otoitz egiten, jazoko diran guztietatik iges egiteko ta Gizasemearen aurrera zutik agertzeko duin izan zaitez» (Luk., 21, 36).

Santu danak izan ziran, eta dira, otoizlari, emakume ta gizon; danak eskatu oi eutsen euren jarraitzaileai otoitzari emonak izan zeitezela. «Otoitza da zeruko giltza», iñoskun

Agustin deunak. «Otoitzean sendo ekiñik eta ortan iraunik, zerua eskuratuko dozu», autortzen eban Teresa Deunak. Barteran San Alfonsok: «Ekin otoitzari ta ez itxi iñoiz be ortan jarduteari; otoitz ba'dagizu, zerua lortuko dozu ziur-ziur; otoitzik egiten ez ba'dozu, galdu zara ziurki».

Ona izan naian dabillen edozeiñek kontuz artu bear dau otoitzaren bear-izana. Lenengotan baleiteke gaitz samar egitea, oiturarik ezagaitik; baiña apurka apurka erreztu egin oi da jarduketa ori. Otoitz egiñez ikasten da otoitz egiten, ume-oroak be ibilliz ikasten dauan lez ibiltzen. Orduak emon oi debez eliz-gizon askok arimai otoitz bidez ibiltzen erakusten; onelakoan frutua, baiña, aundia izango da arimak otoizlari egitera eltzen diranean.

Otoitzaren baldintza ta kondiziñoak

Lenengo. Zintzotasuna. Apala izan bear dau gure otoitzak. Ez dogu egundo aaztu bear guk Jainkoaren laguntasuna bear dogula, gosakille batek ogi-muskiña bizi izateko bear dauan baiño geiago.

Bigarren. Adiera. Onek esan nai dau gure adimenak otoitz-gaiari loturik egon bear daua. Adierak izan bear dau: a) *Kanpotikoa*, aldia, lekua, egoera, barrualkartzera daroen zertzeladak kontuan izanik. b) *Barrukoa*, au da, *gogozkoa*, Jainkoari berari, Ama Birjiñari edo-ta santu bati, otoizten dogun gaiari gogoia lotuta eukirik; *letrazkoa*, itzak eta esarak zer adierazo nai daben ikusirik; au be garrantzizkoa da. *Gaizkoa*, itzak bakar-bakarrik zeatz esanaz; au bakarrik ez da naikoa, bestela Jaunak diñoan au jazoko litzateke: «Erri onek ezpane bai aintzaten nau, baiña bere biotza urrin dago Nigandik» (Mat., 15, 8). Kanpotiko adiera beiñik-bein euki bear dogu, ta Jainkoa gurtzeko asmo ta erabagi jarraikoa. Adimenez an-or ibilteak, beren-beregiz diranean, pekatu dozuz. Ez dira, ostera, pekatu naitaezkoak dozuzanean, edo-ta gure gurariz naiz zabarkeriz leku emonak ez diranean, edo-ta gaixotik naiz gai-ezetik jagiak diranean.

Irugarren. Apaltasuna. «Jainkoak arroai arpegi emoten

1982
Karmel 1982-1, 103-104.
1982-2/3/4, 135-147.
1982-2/3/4, 165-172. (Oleri 1982, 160-161)

dautse, baiña apalai bere mesedea» (*Jak.*, 4, 6). Auxegaitik jarten gara belauniko otoitz egiten dogunean.

Laugarren. *Uste ona*. Fede bizitik jagi oi da au, Jainkoak agindua beteko dauanaren konfiantza osotik; Aren leialtasunean eta ontasunean erroturik daukagun uste onetik. Gogoragizu kanaandar emakumearen istoria: «Aundia da, andra, zure fedea, jazo bekizu nai dozunez» (*Mat.*, 15, 28). «Jainkoak edonori emoten dautsa, esku-zabal eta ezertan be iraiñik egin bage; eska beio, emongo dautso-ta. Baiña siñestez eskatu bear dau, bape ezbai barik; ezbai danak, aizeak darabilen eta astintzen dauan itxas-olatu bat dirudi» (*Jak.*, 1, 6). Ez dau ezer artuko Jaunagandik.

Bostgarren. *Iraupena*. Errezago da otoitzea egiten astea, asita gero aurrera jarraitzea baiño. Jarraitzeak beti be alegiña bear dau. Guk atsegiña sentidu ala ez otoitzari ekiterakoan, Jainkoak beti dirau Jainko, baita guri laguntzen be. Gizon itsua osatzen dau Jaunak, atzetik erruki eske, onela joan yakonean: «Dabid'en seme ori, erruki zakidaz» (*Luk.*, 18, 38). Gomutara baita gabaz ate-joka ekin eutson adiskidearen alegia (*Luk.*, 11, 8). Ez dago zetan esanik be, Jainkoak gure eskaria saritu nai dauanean. Gure fede ona aztertu nai dau Arek.

Seigarrena. *Eroapena*. Guk beti gertu ta prest egon bear dogu gauzak guk baiño obeto ikusten ditun Jainkoaren eskuetan. Ez dogu alamenik jo bear eta negarrik egin bear gure eskaria saritua ez danean. Zelan edo alan saritua bait da izango gure erregua. «Aita —esan eban Ak— nai ba'dozu, ken egidazu aurretik kaliza au; baiña ez egin nik nai dodanez, Zeuk nai dozunez baiño» (*Luk.*, 22, 42).

Otoitz egin leike bat-edo-batek, ortarako berotua aurkitzen danean, bertan euki oi dan pozari ta gozotasunari kea aterarik. Otoitzean iraunkor izateko, baiña, lenengotan, gogoko izan, nai izan ez, Jainkoari egiten yakon zerbitzu egiazkoa da, ta izango Aren laguntza bereziak.

Eta erantzun bako otoitzak? Gure erregu ta eskariak sarri erantzun barik geratzen dirala dirudi, baldintza naiz kondiziño batzuk geure aldetik edo otoitzaren aldetik falta izan

diralako. Gure Jaunak, baiña, beste erantzun batzuekaz ordeaztu oi dauskuz. Lurreko aita batek be bardin, diñosku Berak: ez, aitak ez dautso bere semeari arria emoten ogia eskatzen ba'dautso, ezta suge bat be arrain bat eskatu ezker; guk alan be, sarri eskatzen dautsagu Jaunari arria ogia eskatu bearrean.

Guk baiño obeto daki Jainkoak guk zer bear dogun; ogia emoten dausku Arek naiz-ta gu ogi-eske ibilli; ba-dira, ta ez gitxi, pertsona onak diranak gero, eurak eskatu dautsoezan gauzakaitik Jainkoari eskerrak emon oi dautsezanak, eta ez dabe olakorik egiten otoitzean erantzun legez artutako mesedeen orde.

Aita Onaindia